

# Zain

Gerardo Diego  
Euskaratzailea: A.O.

Datorrenean, ai!, ez dakit  
zegaz dodan zapiz batuko,  
zegaz.

Ai!, esaidazu zuk, illargi,  
zeure beso zorakorretan  
aritz giartsu arturik,  
zeure kuman kulunkatzean...

Esaidazu, ez dakit-eta,  
zegazjantziko dot bera nik,  
zegaz.

Ai!, esaidazu zuk, aizeño,  
zeure mosu orren eztitsuz  
orri zutena igi-azo  
ta luma lauena orraztuz...

Esan, ta nik ez dot esango,  
zegaz dot nik mosukatuko,  
zegaz.

Ta, orain datorkit gogora,  
Jainkoaren aingeru diña,  
esan, zuk bai zeustan iragar  
mezulari: «Ona otseiña».

Bai, esaizu, zeure siñestez,  
zegaz besarkatuko dot nik,  
zegaz.

Naiz esaidazu zuk, bestelan,  
ba-dakizu beiñik-bein, Jose,  
eta nik men dautzut egingo,  
neskatil bai nozu oindiño,

nundiko eskuz eutsiko nik  
oi!, apurtu ez dagidan, ez,  
nundiko eskuz.